

# **Euskara ikasgaiaz hausnarrean: gogoeta-prozesuaren gakoak**

# AURKIBIDEA

## I- Abiapuntua

- \* Egoera: Zalantzak, ametsak
- \* EGA zertifikazioa
- \* Bideari ekitea, antolaketa

## II- Dauden programen azterketa

- \* Euskal programena
- \* Frantses Programena
- \* Hegoaldeko Gaztelerako programena
- \* HNeko Historiako programena

## III- Gure programen eraikitzea

- \* Metodologia eta ikuspegia
- \* Hizkuntzaren lanketa
- \* Urratsak + heldu den ikasturtea

# I- ABIAPUNTUA:

## A) Egoera: zalantzak, ametsak.

- **Seaska + lizeoa handitu:** %126 azken 10 urteotan.
- Familia euskaldun gutiago
- Euskara hizkuntz gaitasuna apaltzen ?
- **Erabilera:** aurten, Kolegioan %34,5, lizeoan %52 (Hizpro).
- **Proiektuaren + komunitatearen kohesioa** euskaratik
- **Testuinguru soziolinguistikoa:** gero eta zailagoa hiztun (eta euskaldun) **oso** eta **aktiboak** sortzea (euskaldun ahaldunduak)

< Euskara **gaitasunaz gain** eta **euskaldun izateko atxikimendua/ motibazioa.**  
Hizkuntza **hautu aktiboa/afektiboa.**

< **Euskal komunitatea / herria existitzen denaren eta parte izatearen kontzientzia:** ondare, historia ... partekatua

## EUSKARA ikasgaia

- **Ez da** murgiltze sistemaren araberrako ezagupena duen **ebaluaketa koherenterik**
  - **Frantses Hezkunde Nazionaleko** programek **euskarari eskualde hizkuntzaren** heineko lekua ematen diote **(LVB)**.


**Baxoan B1** maila galdegiten (**A2** lanbide heziketan).

- **Edukietan** euskarak ez du frantsesak duen zentralitaterik programetan (historian ...).
- C1 eta B2 hizkuntza gaitasun **zertifikazioak** (Kanpoko erakundeak)

## ▪ Hizkuntz gaitasun zertifikazioez: EGA



**Baikorra** : euskarari estatusa , arreta, jendartean defizitan diren funtzio linguistikoak ebokatzen (administrazioarekiko gutun ofizilak)



**Ezkorra:**

- **Ez da arrunt egokia** lizeoko adineko ikasleei begira, frogek galdegiten duten gaitasun kognitiboengatik + eskola orduen mugagatik (sustut LH)
- **Hizkuntzaren zuzentasuna** ez da komunikazio gaitasunaren / diskurtsoaren zerbitzuko bakarrik ebaluatzen. Gramatika ariketa esplizituak egiten dira: berridazketak eta erranadiak zuzendu.
- **Prestaketa** abantzu **esklusiboa**
- **Euskarari lotuak** zaizkion gainontzeko **edukiak + metodo gaitasunak** (sintesia, dizertazioa...) **bigarren mailan** uzteko arriskua + **frantsesez lantzea**

# Zein da zinez gure helburua herrigintza hezkuntza proiektu gisara ?

Non eta noiz landu eta **partekatuko dira** ikasleekin:

- Euskal **literatura** ? Euskal **sortzaileak bilakatzeko** praktikak? Euskaraz **irakurriz gozatzeko** tarteak?
- Euskal hiztun komunitatearen **historia**?
- Hiztun **aktiboak** izateko beharrezkoa den soziolinguistika **kontzientzia**?
- Egungo jendarteari, aktualitateari, munduari **euskaratik behatzea**?
- **Jendarte hobe** baten menturan, jendartean euskaraz **ekile** eta **eragile** izateko tresnak?
- Hainbat **metodo** eta testu mota (konposizioa, dizertazioa...) Izpiritu kritikoa, hausnarketa eta argudiaketa egituratzen dituztenak?

## ❖ **Bideari ekitea:**

- ❖ 2020an Lizeoko euskara irakasleek: **euskal programaren + ebaluazio koherentearen beharra**
- ❖ Ipar EHko murgiltzearen ezaugarri eta eskakizunetikiko **koherentea**
  - ❖ EHI-ko programazioa ez arras egokia guretzat
- ❖ Azken urteetan **bigarren mailako euskara irakasle guztiak** biltzen: bilkurak eta formakuntzak.

## ❖ **HELBURUAK:**

- ❖ Ikasgela barneko gure programa propioak **sortzea**
- ❖ Progresio **mailakatu** eta **ebaluatua**.
- ❖ **Euskal Baxoa:** koherentea, euskal erreferentzietan oinarritutakoa eta ezagupen bat duena.
- ❖ Prozesu **formatzailea**
- ❖ **Harreman sarea**, aliantzak

## ❖ **ANTOLAKETA**

- Aurten lizeoko euskara irakasleak dedikazio bat dugu:
- Bosteko taldea: lau euskara irakasle eta euskara teknikaria.
- Kolegiokoekin formakuntza eta kontrastea.
- Iratxe Retolaza bidelagun.



# II- Dauden PROGRAMEN AZTERKETA

## a) EUSKAL programen azterketa

- Orain arteko lizeoko programak sailkatu

Literatura	Historiko soziala	Testu mota	Hizkuntza	Gaitasun metodologikoak	Izaten jakin
------------	-------------------	------------	-----------	-------------------------	--------------

- Kolegiokoen programak, kolegioan zer lantzen den eta zer ez, oinarri hartzeko.

# Hego Euskal Herriko programak aztertu:

Arizmendi ikastola (Debagoiena), Hernaniko institutua, Zurriola ikastola (Donostia), Laskurain ikastola (Tolosa)

- **Testu motetan** oinarritzen dira eta **Hizkuntza gaitasun** komunikatiboa da helburua.
- **Literatura** historiko sozialarekin uztartzen dute. Historikoa ez da biziki sakondua (Historia kurtsoetan?)
- Testu anitz (kapital handia) baina laburrak.

Azterketa literarioa ez da hainbeste sakontzen (frantses programei konparatuz).

- Batzuk **proiektuka** ari dira, hizkuntza komunikatiboan oinarritutako ekintzak egiten.
- **Selektibitatea** ez bereziki prestatzen
- Terminalean **soziolinguistika** bereziki.
- **Zertifikazioa:** B2a aitortzen zaie < Batzuek C1eko azterketa prestatzen dute (lehenean, terminalean).
- **Irakurketak** ez du bortxaz loturarik gaiarekin. Zaletasunari ematen zaio garrantzia?

## **Ikasmaterial desberdinak aztertu :**

- Eredu desberdinak: LOMLOE erreformakoak eta aitzinakoak
- Baina ez da, literatura, historiko soziala, testu motak bateratuki lantzen.
- Literaturan oinarritutako metodo gaitasunak /Testu motak ments: dizertazioa, sintesia, konposizioa, azterketa analitikoa.
- Gaia / Problematikarik ez
- Hegoaldeko errealitate historiko sozilaera lotua // Espainiako literatura.
- Proiektuka eta erronkak dira orain gero eta gehiago eta material guti bada oraindik.

## b) FRANTSES programen azterketa

- **Gramatika** eta testu motak **kolegioan lantzen** dira. **Lizeoa literaturan** zentratua da.
- Eskakizun **maila gora** (alde on eta txarra).
- Azterketa literario sakonak.
- 20 testu. 8 obra oso irakurtzen, bi genero bakoitzetik.
- **Gaika /Problematikak** banatuak (mugimendu literarioak + LHn gaia)
- **Literaturaren inguruko testu motak** (ahozkoan eta idatzian) // Baxoa
- **Komentarioa, dizertazioa** (problematika sortu, paragrafoak nola osatu...metodologia konkretu bat bada).
- **Gaitasunak**: Idatziz eta ahoz, aztertu, interpretatu, eta argudiatzeko gaitasuna eta ikuspegi kritikoa garatzen da helburu.
- **Soziolinguistikarik ez** da.
- **Sormen literario guti** da.
- **Historiko sozialaren** arabera baina Historiako kurtsoetan landua.

## c) Hego aldeko GAZTELERAKO PROGRAMEN AZTERKETA

- Testu motak + Hizkuntzaren gaitasun komunikatiboa
- Testu anitz eskeintzen
- Testu analisia eta testu ekoizpena galdegina baina ekoizten duten testua aski sinplea eta motza da. Klasean ikasitako edukia da bereziki.
- Soziolinguistika lantzen da.
- Historiko soziala eta mugimenduak ageri dira. Historia historiko kurtsoetan lantzen.

## d) HISTORIAKO programak

- **Euskal historian oinarritu** behar dugu euskal literaturaren historia.
- Kolegio eta lizeoko **Historiako programetan oinarrituz**, Euskal Herriko historia eta euskal literaturako erreferentziak araberan zerrendatu ditugu.
- Historia ikasgaian **Euskal Herriko historia lantzeko aukera mugatua** denez, euskara ikasgaian lekua egin beharko zaio.
- **Testu mota / gaitasun interesgarriak**: Dokumentu azterketa + Konposizioa + argumentazioa eraikitzeke metodoa

### III- GURE PROGRAMA ERAIKITZEN

#### a) Metodologia:

- **Gai – ildo bat** hiruhilaka (iradokitzailea, PB-ak garatzeko aukera)
- **Erronkan** (hiruhileko bana)
- Euskal literaturaren **kronologia** ardatz + **Testuinguru** historiko soziala + **Soziolinguistika**
- Testu mota / metodo gaitasunak landuz (**dizertazio, sintesia, konposizioa..**)
- **Hizkuntza gaitasuna** : beharrak + bederen C1

## **b) Ikuspegia:**

- **Ikasleak ekile + sortzeari garrantzia** ematea
- **Gaurko** testu/autore/errealitatearekin zubia
- **Euskal kultura bizia** eta **kultur esperientzia kolektiboak** esperimentatzea
- **Ipar Euskal Herriko ikuspegia**
- **Kolektibo azpiratuei argia** ematea, klase ikuspegia, genero ikuspegia
- Generoak: ahozko literatura, bertsolaritza, antzerki herrikoia, prentsa /aldizkariak...



## c) Hizkuntzaren ikuspegia

- Helburua:
- Hizkuntz zuzentasuna **modu diskurtsiboan** lantzea eta ebaluatzea
- Ikaslearen hizkuntza kalitatea hobetzea da gure helburua.
- **Euskal Baxoko** frogen baitan
- Momentuz, B2 eta C1 azterketa egiaztatzaileak

## d) Urratsak

- Bizkarrezurra eraiki : programazio orokorra
- Aritu eta arituekin kontrastatu.
- Sekuentziazioa + ebaluazio taulak eraiki.
- Klaseratu + kontrastatu (gure artean + aditu/arituekin).

Orain arte egindakoa:

[https://docs.google.com/document/d/1UiFysfah4DphQnZtIZtGFKR4P23JcjwTFi0yEdB\\_WYM/edit](https://docs.google.com/document/d/1UiFysfah4DphQnZtIZtGFKR4P23JcjwTFi0yEdB_WYM/edit)

# HELDU DEN URTEETARAKO AURREIKUSPENAK:

## LIZEOAN

- **Orokor eta teknologikoan:**
- Bigarrenen eta Lehenen sekuentziazioa klaseratu, kontrastatu eta hobekuntzak egin.
- Terminaleko sekuentzia programatu
- Euskara Berezitasuneko programa eraiki (lehenak + terminalak)
- Ahalaz, **lanbide Heziketako** programak eraiki (Hizkuntz Zertifikazioarena hausnartu.)
- Ahalaz, **Euskal Baxoko frogak** aurreikus/diseinatu

- **Beste ikasgaietako irakasle guztiekin** hizkuntza eta euskal kulturako edukiak bateratuki

eta era koordinatuan transmititzea eta ebaluatzea landu.

- **Ahozko hizkuntzaren lanketa**, ahozko frogak eta ziklo bukaerako ahozko ebaluazioa.
- **Gelaz kanpoko** lanketa segitu eta garatu (euskara bitartekariekin eta euskara taldeekin)

## KOLEGIOAN

- **programaren lanketa**
- **Euskal Brebeta + B2 hizkuntz gaitasun zertifikazioa**